

# Urriaren 21eko 70/1997 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legean emandako xedapenetara egokitzen duena Aseguru Primen gaineko Zergari dagokionez.

## AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Dekretu osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru dekretuaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

1. artikulua. Aseguru Primen gaineko Zergaren izaera .....	2
2. artikulua. Araudi aplikagarria .....	2
3. artikulua. Eremu espaziala .....	2
4. artikulua. Zergaren ordainarazpena, ohiko egoitza eta zerga helbidea .....	3
5. artikulua. Zergagaia .....	5
6. artikulua. Zergatik salbuestea .....	5
7. artikulua. Zergaren sortzapena .....	6
8. artikulua. Oinarri ezargarria .....	6
9. artikulua. Sujetu pasiboak .....	6
10. artikulua. Zergaren jasanaraz-pena .....	7
11. artikulua. Zerga tasa .....	7
12. artikulua. Autolikidazioa, ordainketa eta urteko aitopen-laburpena.....	7
13. artikulua. Zerga ordezkaria izendatzea eta Zerga Administrazioari jakinaraztea. (Indargabetua)....	8
AMAIERAKO XEDAPENAK.....	8
Lehena. Arauak emateko ahalmena.....	8
Bigarrena. Indarrean sartzea.....	8

Berriki onartua izan den abuztuaren 4ko 38/1997 Legeak, Euskal Autonomia Elkarteko Ekonomi Ituna aldatzekoak, xedatuta uzten du 31. artikuluan Aseguru Primen gaineko Zerga ordainaraztea Foru Aldundiei dagokiela aseguru eta kapitalizazio eragiketen arrisku edo konpromisua euskal lurraldean kokatzen denean.

Aseguru Primen gaineko Zerga zeharkako tributu bat da Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legearekin jaio zena. Estatu espainiarrean 1997ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean. Gure sistema tributarioan berri-berria dugu beraz figura inpositibo hau. Bere helburua hauxe da: teknika aktuarialean oinarritzen diren aseguru eta kapitalizazio eragiketak, aseguru pribatuak antolatu eta ikuskatzeari buruzko azaroaren 8ko 30/1995 Legearen 3. artikuluan jasotakoak, fase bakarrean zergapetzea.

Zerga hau ordainarazteko foru aldundiak duten eskumenaren kaltetan joan gabe, 38/1997 Legeak dio aldundiak Estatuak une bakoitzean ezartzen dituen arau sustantibo eta formal berberak aplikatu behar dituztela. Horrek ezinbestean dakar Gipuzkoako zerga araudia Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legean jasotako xedapenetara egokitzea Aseguru Primen gaineko Zergaren arauketari dagokionez, nahiz eta Ekonomi Ituna aldatzen duen 38/1997 Legeari begiratuaz bidezko doiketak egin beharko diren.

Horiek horrela, Zergen Foru Arau Orokorrak 13.1 artikuluan xedatutakoaren indarrez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu ondoren, honako hau,

## **XEDATU DUT:**

### **1. artikulua. Aseguru Primen gaineko Zergaren izaera.**

Aseguru Primen gaineko Zerga zeharkako tributu bat da aseguru eta kapitalizazio eragiketak kargatzen dituen foru dekretu honetan ezarritako arauak jarraituz.

### **2. artikulua. Araudi aplikagarria.**

1.<sup>1</sup> Ekonomia Itunak 32. artikuluan xedatutakoaren markoan, foru dekretu honek eta hori garatzeko xedapenek jasotakoaren arabera exijituko da zerga.

2. Zerga aplikatzerakoan, kontuan hartuko da Espainiako barne ordenamenduak onartuak dituen nazioarteko itun eta hitzarmenetan xedatutakoa.

### **3. artikulua. Eremu espaziala.**

---

<sup>1</sup> Apartatu hau Gipuzkoako zerga araudia Ekonomia Itun berriaren xedapenetara egokitzen duen urtarrilaren 29ko 1/2003 FORU ARAUAREN III Kapituluko 9.artikuluaren bat zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.(GAO 2003-02-06).

Espainiako lurraldea da zerga hau aplikatzeko eremu espaziala, eta horren barruan sartzen dira, inguruko uharteak, eskumeneko itsasoa hamabi milia nautikoetaraino (urtarrilaren 4ko 10/1977 Legearen 3. artikulua definitzen du muga hori), eta eremu horri dagokion aire espazioa.

#### **4. artikulua. Zergaren ordainarazpena, ohiko egoitza eta zerga helbidea.<sup>2</sup>**

**Bat.** Aseguru Primen gaineko Zerga Gipuzkoako Foru Aldundiak exijituko du arriskua edo konpromisoa Gipuzkoan kokatzen denean, aseguru eta kapitalizazio eragiketetan.

**Bi.** Hori dela eta, arriskua Gipuzkoan kokatuta dagoela ulertuko da hurrengo arauak betetzen direnean:

1. Asegurua higieinei badagokie, ondasun higiezinak Gipuzkoako lurraldean egotea. Arau bera erabiliko da aseguru higieinei eta horien edukari dagokienean, baldin eta aseguru-poliza batek berak estaltzen baditu higiezinak eta edukia. Asegurua higiezinan dauden ondasun higikorrei soilik badagokie, merkataritzako igarobidean dauden ondasunak izan ezik, ondasun higikorrek barruan dituen higiezin hori Gipuzkoako lurraldean egotea.

Baldin eta aseguru batek berak estaltzen baditu Gipuzkoan eta beste lurralde batean dauden higiezinak, foru lurraldea izan edo komuna izan, horietako bakoitzean kokatuko da arriskua lurralde batean eta bestean kokatutako higiezinaren balioa kontuan hartuta.

2. Asegurua edozein ibilgailu motari badagokio, ibilgailua bere izenean matrikulatuta duen pertsonak edo erakundeak ohiko bizilekua edo zerga helbidea Gipuzkoan edukitzea.

3. Asegurua bidaietan edo aseguru hartzailearen ohiko bizilekutik kanpo gerta litezkeen ezbeharrei badagokie, eta aseguruaren iraupena gehienez lau hilabetekoa bada, aseguru hartzaileak aseguru kontratua Gipuzkoan sinatzea.

4. Aurreko arauetan berariaz azaldu gabeko kasu guztietarako: aseguru hartzailea pertsona fisikoa bada, bere ohiko bizilekua Gipuzkoako lurraldean egotea; eta bestela, kontratuan ageri den sozietatearen egoitza edo sukurtsala Gipuzkoako lurraldean egotea.

**Hiru.** Bizi aseguruaren kasuan, konpromisoa Gipuzkoako lurraldean kokatzen dela pentsatuko da baldin eta aseguru kontratatzaileak lurralde horretan badu ohiko bizilekua, pertsona fisikoa izanez gero, edo sozietate egoitza edo sukurtsalen bat, kontratua pertsona juridiko bati buruzkoa izanez gero.

**Lau.** Aurreko apartatuetan esaten denari jarraituta ere lokalizatzeko berariazko araurik ez baldin badago, aseguru eta kapitalizazioko eragiketak Gipuzkoako lurraldean burututakotzat hartuko dira: baldin eta kontratugilea enpresa edo lan jarduerak aurrera eramateko eragiketak burutzen dituen enpresaria edo profesionala bada eta Gipuzkoako lurraldean badago bere jarduera

---

<sup>2</sup> Artikulu hau Gipuzkoako zerga araudia Ekonomia Itun berriaren xedapenetara egokitzen duen urtarrilaren 29ko 1/2003 FORU ARAUAREN III Kapituluko 9.artikuluaren bi zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2003-02-06).

ekonomikoaren egoitza edo bertan badu establezimendu egonkor bat, edo, halakorik ezean, bere egoitza.

Horretarako, enpresari edo profesionaltzat hartuko dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araudiari jarraituz halakotzat hartutakoak.

**Bost.** 1. Pertsona fisiko batek bere ohiko egoitza Gipuzkoako lurralde historikoan duela ulertuko da honako arauak elkarren jarraian betetzen dituzenean:

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergaldiko egun gehienak Euskal Autonomia Erkidegoan emanik, Gipuzkoako lurralde historikoan egindako egun kopurua handiagoa denean Euskal Autonomia Erkidegoko beste bi lurralde historikoetako bakoitzean baino.

Lurralde jakin batean pertsona batek zenbat denbora eman duen zehazteko, aldi baterako kanpoan izandako denbora hartuko da kontuan.

Bestelakorik frogatzen ez bada, pertsona fisiko bat Gipuzkoan bizi dela joko da pertsona horren ohiko etxebizitza lurralde horretan dagoenean.

2. Interesen gune nagusia Gipuzkoan duenean. Hala gertatzen dela ulertuko da baldin eta pertsona fisiko batek, zerga honen oinarri ezargarriaren zatirik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan lortzen duelarik, Gipuzkoan lortzen badu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren oinarri ezargarriaren zati handiagoa Euskal Autonomia Erkidegoko beste bi lurraldeetako bakoitzean lortutakoa baino. Bi ondorio horietarako, kapital higikorretik eratorritako ondare errentak eta irabaziak ez dira aintzat hartzen, ez eta gardentasun fiskaleko erregimenean egotzitako oinarriak ere, profesionala izan ezik.

3. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako aitortutako azken egoitza Gipuzkoako lurralde historikoan kokatuta dagoenean.

Bigarren araua aplikatuko da baldin eta lehenengoan xedatutakoari jarraiki ezinezkoa gertatu bada zergadunaren ohiko egoitza ezein lurraldetan -komun edo foralean- zehaztea. Hirugarrena, berriz, lehen eta bigarren arauak aplikatu ondoren zirkunstantzia hori bera gertatzen denean ezarriko da.

2. Pertsona fisikoek, lurralde espainiarrean egoiliarak izanik, ez badute igarotzen bertan urte naturalaren barruan 183 egunetik gorako denbora, Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliartzat hartuko dira beren jarduera enpresarial edo profesionalen gune nagusi edo basea nahiz beren interes ekonomikoena lurralde horretan kokatzen bada.

Aurreko paragrafoan jasotakoaren arabera pertsona fisikoen ohiko egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan dagoenean, pertsona fisiko horiek Gipuzkoako biztanletzat joko dira beren jarduera ekonomiko edo interes ekonomikoen gune nagusia lurralde horretan kokatzen bada.

3. Pertsona fisiko batek ohiko egoitza Gipuzkoan duela ulertuko da lurralde espainiarrean egoiliarra dela uste denean, legez banandu gabeko ezkontidea eta haren menpe dauden adingabeko seme-alabak Gipuzkoan bizi direlako, bestelakorik frogatzen ez den bitartean.

4. Pertsona juridikoen zerga helbidea Gipuzkoan dagoela joko da baldin eta beren sozietate helbidea lurralde horretan badago eta beren negozioen

kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza bertan kokatzen bada. Bestela gertatuz gero, kudeaketa edo zuzendaritza horien tokiari kasu egingo zaio.

Aurreko irizpideen arabera ezin denean zehaztu zerga helbidea non den, pertsona juridikoek zerga helbidea Gipuzkoan dutela ulertu beharko da, ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan izanik, Gipuzkoan ibilgetuaren balio handiagoa dutenean beste bi lurralde historikoetako bakoitzean dutena baino.

5. Sozietate zibilek eta nortasun juridikorik gabeko entteek zerga helbidea Gipuzkoan dutela ulertuko da, haien kudeaketa eta zuzendaritza lurralde horretan gauzatzen direnean. Baldin eta kudeaketa eta zuzendaritzari buruzko irizpidea erabilia ere ezin bada zehaztu sozietate zibilen eta nortasun juridikorik gabeko entteen zerga helbidea, ulertu behar da helbidea Gipuzkoan dutela, haien ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan izanik, Gipuzkoan ibilgetuaren balio handiagoa dutenean beste bi lurralde historikoetako bakoitzean dutena baino.

6. Establezimendu iraunkorren zerga helbidea administrazioaren kudeaketa edo negozioen zuzendaritza eramaten den lurraldean izango da.

Aurreko irizpidearen arabera ezin denean zehaztu zerga helbidea non den, establezimendu iraunkorrek zerga helbidea Gipuzkoan dutela ulertu beharko da, ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan izanik, Gipuzkoan ibilgetuaren balio handiagoa dutenean beste bi lurralde historikoetako bakoitzean dutena baino.

## **5. artikulua. Zergagaia.**

1. Aseguru pribatuak antolatu eta ikuskatzeari buruzko azaroaren 8ko 30/1995 Legearen 3. artikuluan definitzen den teknika aktuarialean oinarritutako aseguru eta kapitalizazio eragiketak egongo dira zergari lotuta, baina beti ere abenduaren 30eko 13/1996 Legeak, Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko Neurriei buruzkoak, 12. artikuluen 6. apartatuan dioenarekin bat badatoz, hau da, eragiketa horiek zergaren aplikazio eremuan eginak badira eta Espainian operatzen duten entitate aseguratzailerik, baita zerbitzu prestazio libreko erregimenean aritzen direnek ere, burutzen badituzte.

2. Ez daude zergari lotuta entitate aseguratzailerik Gizarte Segurantzako Administrazioaren organismoekin edo Zuzenbide Publikoko Entitateekin izenpeturiko hitzarmenen ondorioz egiten dituzten eragiketak, entitate horiek, berariazko legeria dela medio, Gizarte Segurantzaren Erregimen Bereziakoren bat kudeatzen dutenean.

## **6. artikulua. Zergatik salbuestea.**

1. Ondoko eragiketa hauek Aseguru Primen gaineko Zergatik salbuesten dira:

a) Derrigorrezko aseguru sozialen eragiketak eta pentsio plan eta fondoan alternatiba modura eratzen diren aseguru kolektiboak dagozkienak.

b) Aseguru kontratuei buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legeak III. tituluaren bigarren sekzioan aipatzen dituen bizi aseguruaren eragiketak.

c) Teknika aktuarialean oinarritzen diren kapitalizazio eragiketak.

d) Aseguru kontratuei buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legeak 77. artikuluan definitzen dituen berraseguru eragiketak.

e) Kauzio aseguru eragiketak.

f) Esportaziorako kreditu-aseguru eragiketak eta nekazaritzako aseguru konbinatuak.

g) Merkantzia eta bidaiarien nazioarteko garraioa aseguratzeko eragiketak.

h) Nazioarteko garraiorako erabiltzen diren itsas eta aireuntzien aseguru eragiketak, aisiarako nabigazio edo abiazio pribatukoak izan ezik.

i) Osasun laguntzako eta gaixotasuneko aseguru eragiketak.

j)<sup>3</sup> Aurreikuspen plan aseguratuei buruzko eragiketak.

**2.** Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araudiak definitutakoa hartuko da nazioarteko garraiotzat. Nolanahi ere, Espainiako lurralde penintsularraren eta Balear Uharten artean, eta Kanariak, Ceuta edo Melilla artean egiten dena ez da nazioarteko garraiotzat hartuko.

Aisiarako nabigazio eta abiazio pribatutzat zerga berezien araudian definitzen dena hartuko da.

## **7. artikulua. Zergaren sortzapena.**

Zergapetutako eragiketen primak ordaintzen diren unean sortzen da zerga ordaindu beharra. Primak zatika ordainduz gero, zerga ordaintzeko obligazioa ordainketa zatikatuetak bakoitza egiten den unean sortzen da.

## **8. artikulua. Oinarri ezargarria.**

**1.** Aseguru-hartzaileak edo hirugarren batek ordaintzen duen prima edo kuotaren zenbateko osoak eratzen du zergaren oinarria.

**2.** Zergari lotuta dauden eragiketengatik kontraprestazio gisa ordaintzen den zenbateko osoa hartuko da, ondorio horietarako, prima edo kuotatzat, beraien arrazoia edo jatorria eta kobrantza tokia eta modua edozein izanda ere. Zenbateko horretatik kanpo uzten dira Aseguruaren Kontentsazio Kontsorzioaren alde eta Entitate Aseguratzailen Kitapen Batzordearen alde ezartzen diren errekarquak eta prima zuzenean kargatzen duten gainerako tributuoak.

## **9. artikulua. Sujetu pasiboak.**

**1.** Zerga honek kargatzen dituen eragiketak egiten dituzten entitate aseguratzailak izango dira zergaren sujetu pasiboak.

Ondorio horietarako, ondoko hauek hartzen dira entitate aseguratzailatzat:

---

<sup>3</sup> j) letra hau hainbat zerga xedapen lurralde komunean egindako lege aldaketa batzuetara egokitzen dituen otsailaren 24ko 10/2004 FORU DEKRETUaren 5.artikuluak arantsi du. Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.(GAO 2004-03-02).

a) Aseguru pribatuak antolatu eta ikuskatzeari buruzko azaroaren 8ko 30/1995 Legeak 7. artikuluan aipatzen dituenak.

b) Europako ekonomi eremuko beste estatukide batean, Espainia ez den beste batean, ezarrita dauden entitate aseguratzaileen sukurtsalak, Espainian aritzen direnean establezimendu eskubidea dutela.

c) Europako ekonomi eremuko beste estatukide batean, Espainia ez den beste batean, ezarrita dauden entitate aseguratzaileak, Espainian aritzen direnean zerbitzu prestazio libreko erregimenean.

d) Europako ekonomi eremutik kanpoko beste herrialde batean helbideratutako entitate aseguratzaileek Espainian dituzten sukurtsalak.

## 2. (Edukirik gabe)<sup>4</sup>

3. Europako ekonomi eremuko beste estatukide batean helbideratuta dauden entitate aseguratzaileek Espainian operatzen badute zerbitzu prestazio libreko erregimenean, lurralde horretan kokatutako enpresari edo profesional kontratugileak izango dira, entitate horiek burututako eragiketa lotuei dagokienez, ordaindu beharreko zergaren erantzule solidarioak, beti ere zergaren jasanarazpena frogatzen ez dutenean.

Ondorio horietarako, enpresari edo profesionalak zergaren aplikazio eremuan ezarrita daudela ulertuko da jarduera ekonomikoaren egoitza, establezimendu iraunkor bat edo zerga helbidea bertan kokatua dutenean, nahiz eta zergari lotuta dauden eragiketak establezimendu horretatik eginak ez izan.

## 10. artikulua. Zergaren jasanaraz-pena.

Entitate aseguratzaileek bere osoan jasanarazi beharko diete Aseguru Primen gaineko Zerga zergapetutako aseguruak kontratatzen dituzten pertsonei.

Jasanarazpena Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araudiak ezarritakoaren arabera egingo da.

## 11. artikulua. Zerga tasa.<sup>5</sup>

Zerga tasa ehuneko 6koa izango da.

Zerga ordaintzeko obligazioa sortzen den unean zein zerga tasa dagoen indarrean, horixe aplikatuko zaio eragiketa bakoitzari.

## 12. artikulua. Autolikidazioa, ordainketa eta urteko aitorpen-laburpena.<sup>6</sup>

---

<sup>4</sup> Apartatu hau ekainaren 20ko 3/2016 FORU ARAUAren 2. artikulua edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako zerga ordenamenduan zenbait aldaketa sartzen ditu, foru araudia ELGAren barruan adostutako akordioetara eta Europar Batasunetik datozen zenbait zuzentarau eta epaietara egokitzeko. Aldaketak 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2016/06/23ko GAO).

<sup>5</sup> Artikulu hau otsailaren 17ko 12/1998 Foru Dekretuaren 3. artikulua aldatu du, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatu Foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudia Estatuaren 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen du.

1) Sujetu pasiboek hilero aurkeztu beharko dute zerga honen aitorpena.

Aitorpena egiterakoan, zein zerga zorra dagokien ere zehaztu beharko dute. Ordainketa non, nola, zein epetan eta zein inprimakiz egin behar den Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakiko du.

2) Sujetu pasiboak, halaber, behartuta egongo dira zerga honen urteko aitorpen-laburpen bat aurkeztera, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak jarritako epeetan nahiz beharkizun eta baldintzak betez.

### **13. artikulua. Zerga ordezkaria izendatzea eta Zerga Administrazioari jakinaraztea. (Indargabetua)<sup>7</sup>**

#### **AMAIERAKO XEDAPENAK**

##### **Lehena. Arauak emateko ahalmena.**

Diputatuen Kontseiluak eta Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak beharrezko xedapenak emango dituzte, norik bere eskumenen barruan, foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko.

##### **Bigarrena. Indarrean sartzea.**

Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean sartuko da indarrean. 1997ko urtarrilaren 1etik aurrera kobratutako primetan, eta lehenago debengaturiko primen zatikietan, 1997ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izango ditu, beti ere dagozkion arriskuak egun hori baino lehen amaitu ez badira.

Aurreko parrafoan xedatutakoa xedatuta ere, primek edo prima zatikiek 1996an dutenean beren epemuga salbuetsita geratuko dira Zergatik, nahiz eta 1997ko urtarrilaren 1etik aurrera ordainduak izan, epemuga hori arrazoirik gabe aurreratu ez bada behintzat.

---

<sup>6</sup> Artikulu hau otsailaren 17ko 12/1998 Foru Dekretuaren 3. artikulua aldatu du, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatu Foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudia Estatuaren 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen du.

<sup>7</sup> Artikulu hau ekainaren 20ko 3/2016 FORU ARAUAREN 2. artikulua edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako zerga ordenamenduan zenbait aldaketa sartzen ditu, foru araudia ELGAren barruan adostutako akordioetara eta Europar Batasunetik datozen zenbait zuzentarau eta epaietara egokitzeko. Aldaketak 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2016/06/23ko GAO).



## ALDAKETAK

Honako zerrendan foru dekretuak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *Otsailaren 17ko 12/1998 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudia Estatuaren 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen duena.(1998-03-04ko GAO).*
  - 3. artikulua 11. eta 12. artikulua aldatzen ditu
- *Martxoaren 9ko 26/1999 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia eremu komunean onartutako legeen zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duena. (1999-03-17ko GAO)*
  - 3. artikulua i) letra gehitzen dio 6. artikuluko 1 apartatuari.
- *Urtarrilaren 29ko 1/2003 FORU ARAUA, Gipuzkoako zerga araudia Ekonomia Itun berriaren xedapenetara egokitzen duena (2003-02-06eko GAO).*
  - 9. artikulua 2. artikulua 1 apartatua eta 4. artikulua aldatu ditu.
- *10/2004 FORU DEKRETUA, otsailaren 24koa, hainbat zerga xedapen lurralde komunean egindako lege aldaketa batzuetara egokitzen dituena (GAO 2004-03-02).*
  - Bere 5. artikulua j) letra erantsi dio 6.artikulua 1 apartatuari.
- *18/2014 FORU ARAUA, abenduaren 16koa, Gipuzkoako lurralde historikoko Per tsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauan zenbait zuzenketa tekniko sartu eta zerga alorreko beste aldaketa batzuk onartzen dituena (2014/12/19ko GAO).*
  - Bere 4. artikulua 13.artikulua aldatzen du.
- *3/2016 FORU ARAUA, ekainaren 20koa, Gipuzkoako zerga ordenamenduan zenbait aldaketa sartzen dituena foru araudia ELGaren barruan adostutako akordioetara eta Europar Batasunetik datozen zenbait zuzentarau eta epailetara egokitzeko (2016/06/23ko GAO).*

- Bere 2. artikulua 9. artikuluko 2. apartatua eta 13. artikulua edukirik gabe uzten ditu.